

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2024 Foru Dekretua, uztailaren 23koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan sortzen ari diren gaixotasunek eragindako kalteetarako laguntza lerroaren oinarri arautzaileei eta 2024rako deialdiari**

Gaixotasun agertu berriak dira ingurune jakin batean lehenengoz detektatzen direnak, aurretik ezagutu izan ez direnak. Batzuk agente patogeno berriek sortzen dituzte; beste batzuk lehendik dagoen agente patogeno baten (birusa, bakterioa, parasittoa edo protozoa) bilakaeraren edo aldaketaren ondoriozkoak dira: agentea espezie ostalari berri batera moldatzen da edo bektore berri batek haren patogenotasuna areagotzen du.

Arazoi askorengatik agertzen dira, baina denetan honako hauek dira nagusiak: bektore berriak (intsektuak) agertzea, horiek urte osoan irautea klima aldaketaren ondorioz, herritarrek joan-etorri ugari egitea eta nazioarteko merkataritza globalizatua.

Abereei eragiten dieten gaixotasun agertu berriek asko larritu dezake abeltzaintzako ustiatzeien ahulezia, potentzial epizootiko handia baitaude.

Aspaldiko urteetan abere gaixotasun agertu berri asko heldu dira (edo hurbiltzen ari dira) Arabako Lurralde Historikora.

Arabako azken urteetan agertu diren gaixotasunetako batzuk honako hauek dira, besteak beste: mihi urdina, Schmallenberg-en birusa eta gaixotasun hemorragiko epizootikoa (hemen-dik aurrera GHE).

Gaixotasun hemorragiko epizootikoa gaixotasun biriko infekziosoa da; hausnarkariei erasaten die, etxekoei zein basatiei, eta ez da kutsatzen: Culicoides generoko eltxoen ziztaden bitartez hedatzen da. Gaixotasun agertu berri hau Afrikan sortua da; Espainian, 2022ko azaroan detektatu zen lehenengoz. 2023. urtean penintsularen hegotik gure lurraldera zabaldu da. Urriaren 10eko 779/2023 Dekretuak, nahitaez aitortu beharreko animalien gaixotasunak zehazten eta horien jakinarazpena arautzen duenak, xedatzen duenaren arabera, gaixotasun honen berri nahitaez eman behar da.

Joan den irailaren 6an lehenengoz detektatu zen Arabako ustiatzei batean. Orduetik hona, bektorea dagoenez, gaixotasuna asko zabaldu da eta lurraldeko animalia eta ustiatzei askotara hedatu da.

GHEk Arabako abeltzaintzari egiten dion kaltea kontuan edukita, laguntza lerro bat ezarri behar da gaixotasun honek eta beste gaixotasun agertu berri batzuek gizartean eta ekonomian duten eraginari aurre egiteko.

Laguntza lerro horren helburua da finantzaketa osoa ematea foru funts propioekin. Horretarako, laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak prestatu behar dira.

Arau hauek izapidetzean aintzat hartu dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako arautze onaren printzipioak, otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan bildutakoak (foru dekretu horren bidez Arabako Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten da). Halaber, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen

testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Gainera, modu partzalean kontuan eduki dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak berariaz egindako txostenean bildutako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasunaren printzipioa ez da urratu, entzunaldiko eta kontsulta publikoko izapideak egin baitira. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat, oro har, eta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere ez du eragiten. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agertu berri diren gaixotasunen ondorioz abeltzaintzako ustiategiek eduki dituzten galera ekonomikoak konpentsatzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onestea. Foru dekretu honen I. eranskinean zehazten dira.

Bigarrena. 2024ko deialdia onestea. Baldintzak II. eranskinean ezartzen dira.

Hirugarrena. Kreditu erreserba: 400.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 40100G/419400/47900403 ("Nekazaritzako ustiategiei laguntzeko neurriak") partidaren kargura (2023ko aurrekontua 2024rako luzatu da).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Deialdiko gehikuntza ehunekoak: ehuneko 100.

Laugarrena. Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 28ko 872/2022 Erabakiaren bidez onetsi zena, IV. eranskinean bildutakoa bertan sartzeko.

Bosgarrena. Nekazaritzako diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 23a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Sailaren diputatua*

**NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA**

*Nekazaritza zuzendaria*

**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**



## I. ERANSKINA

### 1. artikulua. Xedea

1.1. Foru dekretu honen xedea da agertu berri diren gaixotasunen ondorioz abeltzaintzako ustiategiek eduki dituzten galera ekonomikoak konpentsatzeko laguntzak arautzen duten oinarriak ezartzea.

### 2. artikulua. Laguntza jasotzeko arrazoiak

Arrazoi hauengatik emango dira laguntzak:

- 2.1 Gaixotasun agertu berriek erasandako animalien tratamenduen gastuak konpentsatzeko.
- 2.2 Gaixotasun agertu berrien ondoriozko heriotzengatik.

### 3. artikulua. Onuradunak

3.1 Foru dekretu honetan arautzen diren laguntzen onuradunak izan daitezke Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan (REGA) inskribatutako abeltzaintzako ekoizpen eta ugalketa ustiategien titularrak diren pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, kalte-ordaina eragiten duena gertatzen denean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

#### A. Baldintza orokorrak

- 3.1.1 Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki behar dira.
- 3.1.2 Zerga betebeharrak egunean eduki behar dira.
- 3.1.3 Ezin da eduki ezarrita administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexuaren araberako diskriminazioarengatik, eta ezin da eduki debeku hau ezarrita martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez.
- 3.1.4 Sozietate zibila, ondasun erkidegoa edo titulartasun partekatua bada, kide guztiek frogatu behar dute 3.1.3 apartatua, hau da, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkatela.
- 3.1.5 Onuraduna ezin da egon Nekazaritza Sailak dirua itzultzeko edo zehapena ezartzeko izapidetzen duen prozedura batean.

#### B. Baldintza bereziak:

- 3.1.6 Abereak ofizialki identifikatuta eta erregistratuta eduki behar dira, indarreko araudi espezifikoan ezarritakoarekin bat etorritik. Laguntza abere espezie batengatik jasotzen bada, abereak abeltzaintzako azpiustiategi egokian erregistratuta egon behar dira.
- 3.1.7 Behar den kasuetan, galera ekonomikoak eduki behar dira gaixotasun agertu berri baten ondorioz.
- 3.1.8 Laguntza jasotzen duten abeltzaintzako ustiategiek indarrean dagoen legerian ezarritako osasunaren eta higienaren arloetako arauak bete beharko dituzte, baita animalien gaixotasunak zaintzeko, kontrolatzeko eta erroitik desagerrarazteko programa ofizialak eta elikatze katea kontrolatzeko planean ezarritako baldintzak ere.



Deialdi honetatik kanpo daude enpresa publikoak edo kapital publikoa partaide dutenak.

4. artikulua. Laguntzak emateko modua eta haien zenbatekoa

A. Gaixotasun agertu berriek erasandako animalien tratamenduetarako laguntzak.

4.1 Laguntza honen zenbatekoa deialdi bakoitzean ezarriko da, gaixotasunaren, epidemiologiaren eta lurraldeko afekzio mailaren arabera.

B. Gaixotasun agertu berrien ondorioz abereak hiltzeagatik edo akabatu behar izateagatik ematen diren laguntzak.

4.2 Arrazoi horienagatik jasoko den laguntzaren zenbatekoa zehazteko, animalien osasunaren arloko kalte-ordainei buruzko foru dekretuaren II. eranskinean bildutako animalia bakoitzaren erreferentzia moduluak hartuko dira kontuan. Laguntza itzuli beharrik gabeko zenbateko bat izango da animalia bakoitzeko.

4.3 Prima jaso dezaketen animalien edo unitateen gehieneko kopurua laguntzaren deialdian ezarriko da.

4.5 A eta B apartatuetako laguntzen baterako gehieneko zenbatekoa 25.000,00 euro da eskatzaileko.

4.6 Deialdi bakoitzean eskaera eredia ezarriko da, egonez gero.

5. artikulua. Laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura

5.1 Laguntzak emateko prozedura lehiaren araubidean izapidetuko da. Hala eta guztiz ere, laguntza hauen xedea kontuan hartuta, ez da balorazio irizpiderik ezarri, eta hainbanaketa egin beharko da, baldin eta ezarritako betekizun guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei gehieneko kopurua emateko behar besteko kreditu erreserbarik ez badago.

Hala gertatzen bada, zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, dagoen kreditu erreserba kontuan hartuta.

5.2 Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua, epealdia eta modua

6.1 Laguntzen deialdian honako hauek zehaztuko dira:

- Aurrekontu partida eta erreserbatzen den kreditua.
- Ezarritako ordainketa moduluak eta prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopurua, halakorik badago.
- Eskaerak aurkezteko epealdia, egonez gero.
- Behar denean, ofizios ezartzen ez bada, eskaerak aurkezteko modua.
- Onartzeko, uko egiteko edo aldatzeko eskaera aurkezteko tokia.

7. artikulua. Izapidetzea, ebatzea eta jakinaraztea

7.1 Onuradunen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren Abeltzaintza Zerbitzuak espedienteak instruituko ditu. Espedienteak foru organo egokiak ebatziko ditu indarrean dagoen araudiaren arabera. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du. Ebazpen horren



aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

- 7.2 Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gehienez ere deialdia onesten denetik 6 hilabete igaro baino lehen eman eta jakinarazi beharko da prozeduraren ebazpena. Epealdi horretan berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, ulertu beharko da eskaerari ezezkoa eman zaiola administrazioaren isiltasunez.
- 7.3 Arabako Foru Aldundiak egiaztatuko du administrazio betekizunak betetzen diren. Beharrezkoa izanez gero, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epealdian, errekerimendua egiten zaion egunetik zenbatzen hasita, eskatzen zaion dokumentazioa aurkezteko. Epealdi horretan eskatutakoa aurkeztu ezean, eskaera iraungiko eta artxibatu egingo da. Aipaturiko baldintzetako bat betetzen ez bada, laguntza jasotzeko eskubidea galduko da; dirua jaso bada, itzuli egin beharko da, eta harekin batera jasotako zenbatekoak sortutako legezko interesak ere bai. Gainera, indarreko arautegiaren arabera bidezkoak diren egintzak abiarazi ahal izango dira.

#### 8. artikulua. Egiaztapenak eta ikuskapenak

Nekazaritza Sailak beharrezko administrazio eta landa arloko egiaztapenak eta ikuskapenak egingo ditu, ustiategi onuradunei eskatzen zaizkien betekizunak betetzen direla egiaztatzeko; besteak beste, honako hauek egiaztatuko ditu: Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoenez, baldintza bereziak betetzen direnez eta aurkeztutako dokumentazioan emandako informazioa egiazkoa den ala ez.

Hala ere, onuradunen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren onuradunek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute baimen hori berariaz ukatzeko. Kasu horretan, onuradunak berak aurkeztu beharko ditu baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Aurka egiten ez bada, eskatutako baldintzak betetzen direnez egiaztatzeko baimena eman dela ulertuko da; hots, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoenez egiaztatzeko baimena eman dela.

#### 9. artikulua. Bateragarritasuna

9.1 Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek helburu bererako ematen dituztenekin.

#### 10. artikulua. Ondorioak eta onuradunen betebeharrak

Arautegi honetan jasotako laguntzen onuradunak honako hauetan ezarritakoa bete beharko dute: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendu aplikagarria. Halaber, behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak eta eskumena duten gainerako organo guztiek eskatzen dieten informazio guztia ematera.

#### 11. artikulua. Laguntzak berrikustea

Laguntza bat emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatzen bada, berriro aztertuko da haren zenbatekoa.



12. artikulua. Itzulketa eta zuzenketak

Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

Aipaturiko baldintzetako bat betetzen ez bada, laguntza jasotzeko eskubidea galduko da eta jasotako dirua itzuli beharko da, eta harekin batera jasotako zenbatekoek sortutako legezko interesak ere bai. Gainera, indarreko arautegiaren arabera bidezkoak diren egintzak ere abiarazi ahal izango dira.

Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira legezko ondorioetarako.

Nekazaritzako diputatuaren foru agindu baten bidez xedatuko da laguntza guztia edo zati bat itzultzea edo haren zenbatekoa edo ordainketak murriztea, ikuskapen edo kontrol txostena aztertu, itzultzeko edo murrizteko proposamena egin eta onuraduna entzun ondoren.

Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoa dirulaguntzenak, ezartzen dituen arau hausteengatik.



## II. ERANSKINA

Gaixotasun agertu berriek eragindako kalteak konpentsatzeko ezohiko laguntzen 2024ko deialdia honela arautzen da:

1. Nekazaritza Sailak edukiko du laguntza hauek kudeatzeko eta ebazteko eskumena.
2. Laguntzak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren erregistroetan dauden datuen arabera kudeatuko dira, eta honako hauen arabera emango dira:
  - i. Laguntza horien oinarri arautzaileak onesten dituen dekretua argitaratu arte egindako kasuen jakinarazpenak.
  - ii. 7. puntuaren ezarritako moduluen arabeko kalkuluak, baldintzak bete ondoren.
3. Nekazaritza Sailak baldintzak betetzen dituzten onuradunen behin-behineko zerrenda eta diruz lagundutako ekoizpenen arabeko banakako moduluak argitaratuko ditu Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.araba.eus>), deialdia argitaratzen den egunetik 15 egun baliodun igaro baino lehen.
4. Onuradunek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute aurreko apartatuan aipatutako argitalpenetik honako hauek egiteko:

- a) Zerrendan agertuz gero: onartu, atzera egin edo datuak aldatzeko eskatu.

Isilbidez onartutzat joko da, baldin eta bost egun baliodunetan interesdunak ez badu inolako jakinarazpenik egiten.

Uko egiteko eta aldaketa eskatzeko epealdi bera egongo da. Aldaketa eskaeran egin beharreko aldaketak adierazi beharko dira eta eskaeraren egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntza aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela frogatzen duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita ukatu ahal izango du horretarako baimena; orduan, berak aurkeztu beharko ditu baldintza horiek betetzen dituela frogatzen duten ziurtagiriak 5 egun balioduneko epe berean.

Halaber, baldintzak betetzen direnez egiaztatzeko, onuradun izan daitezkeenei eskatuko zaie aurkez ditzatela laguntza behar bezala ebazteko beharrezkotzat jotzen diren agiri edota informazio osagarri guztiak.

- b) Behin-behineko zerrendan agertu ez baina ezarritako baldintzak betez gero, sartzeko eskatu, egiaztagiria aurkeztuta, hau da: kasu jakinarazpena behar bezala beteta.

Sartzeko eskaeran kasuan, Nekazaritza Sailak beharrezko administrazio eta landa arloko egiaztapenak eta ikuskapenak egingo ditu ustiategi onuradunei eskatzen zaizkien betekizunak betetzen direnez eta aurkeztutako dokumentazioan emandako informazioa egiazkoa denez egiaztatzeko; besteak beste, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoenez egiaztatuko du. Hala ere, onuradunen zerrendan sartzeko eskatzean onuradunek egiaztapen horiek egiteko baimena ukatu ahal izango dute. Kasu horretan, baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.



5. 4. apartatuan jasotako onartzeko, uko egiteko, aldaketa eskatzeko edo sartzeko eskatzeko, hauetako batean egin daiteke:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Foru Ogasunak Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoaren berariazko izapidearen bidez: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

6. Aurreko apartatuan xedatutakoaren babesean aurkeztutako alegazioen ebazpena gehienez ere hilabeteko epean emango da, alegazioak egiteko aurreikusitako bost eguneko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7. Moduluak:

1. lerroa: Gaixotasun hemorragiko epizootikoak jotako animalien tratamenduetarako konpentsazio laguntza.

Onuradunak izango dira behien azpiustiapena daukaten REGA ustategien titularrak, baldin eta I. eranskineko oinarri arautzaileetako baldintzak betetzen badituzte eta gaixotasun hemorragiko epizootikoaren kasuak jakinarazteko orria (III. eranskina) aurkeztu badute, behar bezala beteta, irailaren 6tik foru dekretu hau argitaratzen den egunera bitartean.

Jakinazpen orrian aipatzen diren animaliei gaixotasuna detektatu zaien eguna irailaren 6tik foru dekretu hau argitaratu artekoa izan beharko da.

Erasandako eta tratatutako animalia bakoitzeko 50 euroko modulua ezartzen da.

2. lerroa: Konpentsazio laguntza animalien heriotzagatik (sabelekoa barne):

Aipatutako jakinarazpen orrian aipatzen diren gaixotasun hemorragiko epizootikoagatik hildako animaliei (sabelekoak barne) Aldundiaren datu basean ipini zaien heriotza eguna irailaren 6tik foru dekretu hau argitaratu artekoa izan behar da.

Lerro honetako moduluak gehienez ere animalien osasunaren arloko kalte-ordainei buruzko maiztaren 28ko 10/2024 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen diren ehuneko 100ekoak izango dira.

8. Kreditu erreserba: 400.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 40100G/419400/47900403 ("Nekazaritzako ustategiei laguntzeko neurriak") partidaren kargura.



